Era berean, 2015eko martxoaren 16ko dataz Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren izenean sinatutako berrikuspenari buruzko ingurumen-jasangarritasunari buruzko erreferentzia-dokumentuaksarrera izan du.

Asimismo, el 16 de marzo de 2015, ha tenido entrada el documento referencial de sostenibilidad ambiental sobre la revisión del plan, firmado por la Dirección de Administración Ambiental.

Prozedurarekin jarraituz, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen 90.4 artikuluaen arabera, Aurrerakina argitara eman eta jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte-hartzearen

Continuando con el procedimiento, una vez publicado el avance y los resultados de la exposición pública y participación ciudadana e institucional, conforme al artículo 90.4 de la Ley 2/2006 de 30 de junio del Suelo y

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

emaitzak aztertuta, udalak plan orokorraren berrikuspen partzialaren dokumentua idazteko oinarrizko irizpide eta helburuak zehaztu behar ditu.

Urbanismo del País Vasco, corresponde al Ayuntamiento adoptar los criterios y objetivos que servirán de base para redactar la revisión parcial del Plan General.

Jarraian, 2015eko martxoaren 27ko Hirigintza batzordearen diktamena bozketara jartzea proposatzen da.

Por ello, se propone someter a votación el dictamen de la Comisión de Urbanismo, de fecha 27 de marzo de 2015.

Jarraian, PSOEko ordezkariak gaia mahai gainean uztea eskatu du. Beraz, eskari hau bozkatu da, emaitza hau izanik: PSOE (1) eta EAJ (7) alde agertu dira. Bildu (7) eta Aralar (1) kontra. Berriro bozkatu egin da eta emaitza berdina izan da. Beraz, Alkateak erabaki du edukia bozkatzea.

Ante dicha propuesta el representante del PSOE solicita dejar el tema sobre la mesa. Se somete a votación la petición con el siguiente resultado; votos a favor: PSOE (1) y EAJ (7). Votos en contra de Bildu (7) y Aralar (1). Se repite la votación con el mismo resultado, por lo que el Alcalde acuerda que se vote el contenido.

Bozketara jarrita hauek izan dira emaitzak: Bildu (7) eta Aralar (1) ados. Kontra EAJ (7) eta PSOEko ordezkaria (1) abstenitu egin da. Beraz, gehiengoz, Udalbatzak

El resultado de la votación ha sido el siguiente: Bildu (7) y Aralar (1) a favor. En contra EAJ (7) y el representante del PSOE (1) se ha abstenido. Así pues, el Ayuntamiento Pleno, por mayoría,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

Lehen.- Iradokizunak ondoren zehazten den moduan erantzutea:

Primero.- Responder a las alegaciones y sugerencias del siguiente modo:

1.-Bonberenea Kultur Elkartearena, 2015eko otsailaren 26an aurkeztua (erregistro zkia.: 1478).

1.-Alegación de Bonberenea Kultur Elkartea, presentada el 26 de febrero de 2015 (nº de registro: 1478).

Aurkeztutako iradokizunik aintzat ez hartzea, ondorengo arrazioak medio:

Desestimar la sugerencia presentada, en base a los siguientes motivos:

Aurrerapen dokumentuaren aurrean aurkitzen gara eta Bonberenea eta honen ingurunearen inguruan planteatzen diren kontuak hirigintza antolamendu xehatuarekin

Nos encontramos ante un documento de avance por lo que los temas planteados en torno a Bonberenea y sus alrededores tienen relación con la ordenación urbana

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

zerikusia dute. Hau da, behin plan orokorraren berrikuspena onartu eta gero Plan Berezi baten baitan zehaztu beharreko kontuei. Beraz, ez da egun gauden fasetik haratago doaz iradokizunak eta ez da aztertzeko unea.

Aldiz, ez da ahaztu behar Bonberenea bertan mantentzea berrikuspenaren helburuetako bat dela.

2.-María Pilar eta Mónica Larrarte Ugartemendiarena, otsailaren 26an aurkeztua (erregistro zkia.: 1486).

San Esteban auzoan dauden hainbat partzela eta eraikinen jabeak dira eta hauen etorkizunaren inguruan galdegiten dute. Baita errebisioaren izapidetzak emango duen denboraren inguruan. Azkenik beren jabetzetan egin daitezken mantenu edo hobekuntza lanen inguruan galdegiten dute.

Iradokizuna aintzat ez hartzea ondorengo arrazoietan oinarrituta:

Planteatutako gaiak hirigintza antolamendu xehatuarekin zerikusia duten heinean etorkizuneko Plan Bereziak zehaztuko du zein izango da eraikinen etorkizuna, hau da, ordenazioz kanpo geratuko diran ala ez. Era berean, izapidetzaren konplexutasuna kontuan hartuz, eta inolaz zehaztasun moduan ulertuz, berrikuspenak gutxienez urte terdi iraun dezake, irizpide eta helburuak onartzen diren unetik hasita. Eta azkenik, burutu daitezken lanei dagokionez, gai hau ez da esku artean dugun egin beharri adieraztea dagokiona. Hau da, egin asmo

pormenorizada. Es decir, se circunscriben a temas que, una vez aprobada la revisión del plan general, deben concretarse en un Plan Especial. Por lo tanto, las sugerencias van más allá de la fase actual del procedimiento y no es el momento de analizarlas.

No obstante, no hay que olvidar que uno de los objetivos de la revisión es mantener Bonberenea en su emplazamiento actual.

2.- Alegación de María Pilar y Mónica Larrarte Ugartemendia, presentada el 26 de febrero de 2015 (nº de registro: 1486).

Las alegantes son propietarias de varias parcelas y edificios situados en el barrio San Esteban y preguntan sobre el futuro de sus propiedades, así como del plazo previsto para la tramitación de la revisión. Por último, preguntan sobre las posibles obras de mantenimiento y mejora que se pueden hacer en los terrenos de su propiedad.

Desestimar las sugerencias, en base a los siguientes motivos:

En tanto los temas planteados están relacionados con la ordenación urbana pormenorizada, el futuro de estas propiedades y su inclusión o no en la ordenación se concretará en el futuro Plan Especial. Así mismo, teniendo en cuenta la complejidad de la tramitación, y sin considerar el plazo señalado como algo exacto, la revisión puede durar al menos año y medio desde la fecha en la que se aprueben los criterios y objetivos de la misma. Por último, en lo que se refiere a las posibles obras a realizar, no es un tema que nos corresponda señalar dentro de nuestro

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

diren mantenu edota hobekuntza lan desberdinak beren udal lizentzia beharko dute eta beraz, baimen eskaerak aurkeztu ahala udal teknikariak jakinaraziko liekete zer egin daiteken eta zer ez, egungo marko urbanistikoan.

cometido. Es decir, toda obra de mantenimiento o mejora que se pretenda realizar, requerirá licencia municipal y, por lo tanto, en la medida que se soliciten los permisos, el técnico municipal les informará de lo que se puede hacer y lo que no, dentro del actual marco urbanístico.

3.-GARREBIT, SL, enpresarena, 2015eko otsailaren 26an aurkeztua (erregistro zkia.: 1487).

3.- Alegación de la empresa GARREBIT, SL, presentada el 26 de febrero de 2015 (nº de registro: 1487).

Iradokizuna aintzat ez hartzea ondorengo arrazoietan oinarrituta:

Desestimar la sugerencia, en base a los siguientes motivos:

Kondeaneko aldapa 7an kokatutako Urrutitxo etxebizitzaren eta partzelaren jabeak bertan etxebizitza garapen berri bat egiteko aukera aurreikustea proposatzen du.

El propietario de la vivienda y parcela Urrutitxo, situada en el nº 7 de Kondeaneko aldapa, propone prever la posibilidad de construir un nuevo desarrollo residencial en el lugar.

Planteamendu honek ez du zerikusirik berrikuspenaren asmoekin eta ez dago berrikuspenaren eraginpean dauden eremu urbanistiko desberdinen barruan kokatuta. Beraz, ezin liteke aintzat hartu.

Este planteamiento no guarda relación con la finalidad de la revisión y no está situado dentro de los diferentes ámbitos urbanísticos afectados por la misma. Por lo tanto, no se puede tener en cuenta.

4.-Izaskun Muñoarena, 2015eko otsailaren 27an korreosen aurkeztua (erregistro zkia.: 1551).

4.- Alegación de Izaskun Muñoa, presentada en correos el 27 de febrero de 2015 (nº de registro: 1551).

Usabal auzoa 29ko Itxaropena etxebizitzako 1. solairuaren jabea da eta Usabal auzoa 28ko Erretiro baserriaren oinordekoa.

La alegante es propietaria de la primera planta del edificio Itxaropena, situado en el nº 29 del barrio Usabal, y heredero del caserío Erretiro.

Jatorrizko egoeran mantentzea eskatzen du, hau da, landalur bezala, inolako garapen industrialik gabe bertan edo ondoan.

Solicita mantener sus propiedades en su estado original, es decir, como suelo rural, sin ningún desarrollo industrial en la misma o en los alrededores.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

Iradokizuna aintzat hartzen da eta Plan Orokorraren aurreko egoerara bueltatzea onartzen da eta landalur bezala sailkatzea.

Se estima la sugerencia y se aprueba recalificar las parcelas tal y como estaban con anterioridad al Plan General; es decir, como suelo rural.

Bigarren.-Aurrerapenaren helburu eta irizpideak ontzat ematea proposatzen da, azaltzen den era honetan:

Segundo.-Aprobar los criterios y objetivos del Avance, en el siguiente sentido:

“23.1 Usabal. Industria-garapen berria” azpiesparrua.

Subámbito “23.1 Usabal. Nuevo desarrollo industrial”.

Sailkatzea lurzoru urbanizaezin gisara, orain hiri lurzoru modura sailkatutako lursaila, eta “23. Usabal. Industrialdea 2” eremutik kanpo uztea, honen mugak egokituz.

Clasificar el suelo como no urbanizable (calificado actualmente como suelo urbano), y dejarlo fuera del ámbito “23. Usabal. Industrialdea 2”, redefiniendo sus límites.

19.1 “San Blaseko etxeak” eta 19.1.1 “San Blas etxeen zatia”

19.1 “Villas de San Blas” y 19.1.1 “Parte villas de San Blas”

Kontuan hartuz lurzoru urbanizaezin gisara sailkatuko dela “23.1 Usabal. Industria-garapen berria” azpiesparrua, “19.1.1 San Blas etxeen zatia” azpiesparrua desagertzea eta 19.1 “San Blaseko etxeak” lurzoru urbanizaezin gisara sailkatzea; eta erabaki horietara, “19. San Blas” eremuaren mugak egokitzea.

Teniendo en cuenta que el subámbito “23.1 Usabal. Nuevo desarrollo industrial” se clasificara como suelo no urbanizable, eliminar el subámbito 19.1.1 “Parte Villas de San Blas” y clasificar el subámbito 19.1 “Villas de San Blas” como suelo no urbanizable, y adaptar los límites del ámbito “19. San Blas” en base a estas decisiones.

“19.2 Zumain” azpiesparruko lursaila.

Terreno del subámbito “19.2 Zumain”.

Sailkatzea lurzoru urbanizaezin gisara, orain sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri modura sailkatutako lursaila; eta erabaki horretara, “19. San Blas” eremuaren mugak egokitzea.

Clasificar el terreno como suelo no urbanizable, en sustitución de su actual clasificación como suelo urbanizable no sectorizado; y adaptar los límites del ámbito “19. San Blas” con arreglo a esa decisión.

14.4 “Elkano kalea”

14.4 “Calle Elkano”

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

Proposatutako etxebizitza garapenaren gauzatzea dela eta, soilik azpieroem honek osatutako jarduketa integratu eremua eta exekuzio unitatea aurreikustea, indarrean dagoen planeamenduan “23.1 Usabal. Industria garapen berria” eta 19.1.1 “San Blas etxeen zatia” azpieroemuekin duen lotura ezabatuz.

Dena-den aztertu behar da, etxebizitza babestuen standarra betearazi behar den edota etxebizitza guztiak librean baimenduko diren irisgarritasun baldintzak bermatzeko karga azpiesparru honi exigituta.

“11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria” azpiesparrua

- * Irizpide formalak:
 - Egiturazko antolamendua Plan Orokorren Berrikuspen Partzialean zehaztu.
 - Azpieroemaren antolamendu xehatua zehazteko helburuarekin, Hiri Antolamenduko Plan Berezia sustatu, Plan Orokorren Berrikuspen Partziala garatu.

- * Irizpide materialak:
 - 550 etxebizitza berri inguruko garapena proposatu, egokiak somatzen diren iharduera ekonomikoetara, ekipamenduetara, e.a. zuzendutako eraikuntzekin osatuz. Beti ere bideragarritasun ekonomikoaren baldintzapean. Hau da, eremuaren garapena bere bideragarritasun ekonomikora lotuta

Cara al desarrollo de viviendas propuesto, contemplar únicamente el ámbito de actuación integrada y la unidad de ejecución formada por este subámbito, eliminando la relación que en la actual ordenación tiene con el conjunto formado por los subámbitos “23.1 Usabal. Nuevo desarrollo industrial” y la parte denominada “19.1.1 Parte Villas San Blas”.

Debe analizarse, en todo caso, si debe hacerse cumplir el estándar de las viviendas protegidas o si se permitirá que todas las viviendas sean libres, exigiendo a este subámbito la carga de garantizar los requisitos de accesibilidad.

Subámbito “11.1 San Esteban. Nuevo desarrollo residencial”

* Criterios formales:

- Concretar la ordenación estructural en la Revisión Parcial del Plan General.
- Impulsar el Plan Especial de Ordenación Urbana, con el objetivo de concretar la ordenación pormenorizada del subámbito, desarrollando para ello la Revisión Parcial del Plan General.

* Criterios materiales:

- Proponer un desarrollo residencial de unas 550 viviendas, complementándolo con edificios destinados a actividades económicas, equipamientos, etc. que se consideren oportunos, dependiendo siempre de su viabilidad económica. Es decir, el desarrollo del ámbito dependerá y se concretará en base a su viabilidad económica, tanto en lo

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

egongo da eta honen arabera zehaztuko da, bai etxebizitza kopurua, bai hauen izaera. Beti ere, Udalaren asmoa ahalik eta alokairu sozialeko etxebizitza eraikitzea izango delarik.

- Bonberenea mantendu, honetarako egokiak izan daitezkeen neurri zehatzak aipatutako Plan Berezian finkatuz.
- Feriala mantendu, honetarako egokiak izan daitezkeen neurri zehatzak aipatutako Plan Berezian finkatuz.
- Dauden beste eraikuntzak mantentzeari edo ez mantentzeari buruzko erabakiak Plan Berezian zehaztu.
- 2009ko Plan Orokorreko proposamenak kontsolidatu, etxebizitzaren errejimen juridiko-ekonomikoari dagokionez (babes ofizialeko etxebizitzaren portzentaiak, e.a.), nahiz eta guztizko kopuruak aldatu.

“33. Bedaioko hirigunea”

- * Irizpide formalak:
 - Egiturazko antolamendua Plan Orokorren Berrikuspen Partzialean zehaztu.
 - Eremuaren antolamendu xehatua zehazteko helburuarekin, Hiri Antolamenduko Plan Berezia sustatu, Plan Orokorren Berrikuspen Partziala garatuz.
- * Irizpide materialak:
 - Eremuaren mugak eta azalerari

que se refiere al número de viviendas como a su naturaleza. El propósito del Ayuntamiento será siempre construir el máximo posible de viviendas de alquiler social.

- Mantener Bonberenea, estableciendo las medidas concretas pertinentes para ello en el mencionado Plan Especial.
- Mantener el Ferial, estableciendo las medidas concretas pertinentes para ello en el mencionado Plan Especial.
- Definir en el Plan Especial las resoluciones sobre el mantenimiento o no del resto de edificios existentes.
- Consolidar las propuestas del Plan General de 2009 en cuanto al régimen jurídico-económico de las viviendas (porcentajes de viviendas de protección oficial, etc.), aunque se varíen los números totales.

“33. Casco de Bedaio”

- * Criterios formales:
 - Concretar la ordenación estructural en la Revisión Parcial del Plan General.
 - Impulsar el Plan Especial de Ordenación Urbana, con el objetivo de concretar la ordenación pormenorizada del ámbito, desarrollando para ello la Revisión Parcial del Plan General.
- * Criterios materiales:
 - En cuanto a los límites y superficie del ámbito se refiere, tomar como

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

dagokionez, Aurrerapenaren 2. aukerari lotutako parametroak erreferentziaz hartu, Berrikuspen Partzialaren behin betiko proiektua egiterakoan eta izapidetzerakoan ontzat eta justifikatuak jo daitezkeen aldaketen salbuespenekin.

- 6 edo 8 etxebizitza berri inguruko garapena proposatu, Berrikuspen Partzialaren behin betiko proiektua egiterakoan eta izapidetzerakoan ontzat eta justifikatuak jo daitezkeen aldaketen salbuespenekin.

“22 Usabal industrialdea 1” eta “23 Usabal industrialdea 2”

Egun dauden iharduerei ahalik eta etekin gehiena atera asmoz, egungo alineazio eta bolumetriaren barruan eraikigarritasuna handitzeko aukera ematea.

4. eta 5. kategoriako komertzio erabilpenen kokapena

Horretara espreski zuzendutako eremuetan soilik ahalbidetzea.

Beste zenbait gai

Indarrean dagoen Plan Orokorraren proposamen orokorrak aurreko helburu eta irizpideetara egokitu. Besteen artean gai hauei buruzko proposamenak: lurraren sailkapena; aurreikusitako etxebizitza garapenak; aurreikusitako garapen industrialak eta hirugarren sektorearekin lotutakoak; errepide sarea; esparru libre orokorrak.

referencia los parámetros asociados a la 2. opción del Avance, con las salvedades que se consideren pertinentes y justificadas a la hora de elaborar y tramitar el proyecto definitivo de la Revisión Parcial.

- Proponer un desarrollo residencial de unas 6 u 8 viviendas nuevas, con las salvedades que se consideren pertinentes y justificadas a la hora de elaborar y tramitar el proyecto definitivo de la Revisión Parcial.

“22 Usabal industrialdea 1” y “23 Usabal industrialdea 2”

Posibilitar la ampliación de la edificabilidad de ambos ámbitos, con el objetivo de sacar el máximo rendimiento a las actividades existentes actualmente, respetando siempre las alineaciones y volúmenes actuales.

Emplazamiento de los usos comerciales de 4ª y 5ª categoría

Posibilitar dichos usos únicamente en los ámbitos expresamente dirigidos a ello.

Otras cuestiones

Adaptar las propuestas generales del Plan General en vigor a los criterios y objetivos antes citados. Entre otras, propuestas relacionadas con estas cuestiones: clasificación del suelo; desarrollos residenciales previstos; desarrollos industriales y relacionados con el tercer sector previstos; red viaria; ámbitos libres generales.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

Parte hartzeak:

- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: *"Beharrezkoa zen berritzea eta rebisatzea hainbat alorretan. Bere garaian esan genuen plana guretzat neurritz kanpoko zela eta denborak eta garaiak hori demostratu digu."*

- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: *"Gai batzuekin ez dugu arazorik, baina beste gai batzuekin, bereziki San Estebani dagokionez, zalantzak ditugu. Nahiz eta irizpideekin ados egon, honi lotuta etxebizitza kopurua eta higi izaera ahalik eta alokairu sozialeko etxebizitza gehien eraikitzea, baina ez dugu ulertzen zergatik kopurua jartzen den. Gure ustez nolabait presaka gabiltza gai honekin eta ikerketa gehiago beharko luke. Horregatik mahai gainean uztea eskatuko nuke."*

- ... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: *"Esan behar da hirigintzako Plan Orokorra tresna bat dela nahi dugun Tolosa eraikitzeko; guk onartu genuen bere garaian, alderdi sozialista eta alderdi popularraren babesarekin. Orain, egoera ekonomiko eta soziala aldatu egin da eta gu prest gaude plan hori berrikusteko. Adibidez, San Estebandik hasita, partaidetza prozesu bat egin zen aurreko urtean eta, horren ondorioz, zenbait aprobetxamendu eta densidade aldatu ziren. Proposamen guzti hauek, txosten teknikoak esan duenez, ez dira bideragarri izan ekonomikoki eta honek eskatzen du patxadaz erabakitzea. Hemen presa dago eta, hain gai garrantzitsua denez, patxadaz eztabaida lasai bat egin nahiko genuke. Hauteskundeak datoz eta Bilduk proposatu zuen Plan Orokorra berrikusiko zuela eta hemen, orain, emaitzak behar dira eta lau eguneko denbora errekorrean daukagu Plan honen aldaketa mahai gainean. Redaktoreek kalkulo teknikoak eta urbanizazioko gastuak jarri dituzte. Gastu horiek guk kontrastatu ditugu egokiak diren edo ez jakiteko eta urbanizazio gastuak, gure estimazioak, bi milioi gehio jarri beharko litezkeela ateratzen da. Kontu horiek mahai gaiean jartzeko kontuak dira. Bestetik, errealojo eta indemnizazioak daude eta gure aurreikuspenak hor jarrita daudenak baino gehiago dira, ia hiru milioieko diferentzia ateratzen da guk egin ditugun kalkuloetan. Hori urbanizazioaren inguruan aztertu beharrezkoa. Ekipamentuak ez daude jarrita. Baita ere esan benetako apostu bat egin beharko genukeela alokera sozialeko etxebizitzak egiteko, udala %60ko jabea delako. Horren baitan guk proposatzen dugu babes ofizialeko etxebizitza guztiak alokeran jarri eta sustapena Udalak egitea. Zenbakiak egin ditugu, gure planteamendua da hor 700 etxebizitzaren bueltan garatzea eta egiten diren etxebizitzaren kopuru horretatik eta horien sustapena eta eraikuntza Tolosako udalak berak egitea. Ferialekuari eta Bonbereneari dagokionez gure proposamena mantentzearena da, batek egiten duen*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

jarduera kulturala dela eta zaindu egin behar da eta bilatu behar dira moduak hori hor enkajatzeko. Usabali dagokionez badago lur zati bat ez urbanizagarri zena eta guk plana onartu genuenean industrialia izatera pasako zen. Oraingo proposamena da ez urbanizagarri jartzea eta gu horrekin ados gaude, Apatia indartu behar delako. San Blas ez urbanizagarri uztearekin ere ados gaude.”

... Alkatea pozik agertu da hainbat gauzekin EAJ/PNV alderdia ados dagoelako. “Argi daukagu momentu honetan Plan Orokorraren irizpideak zehaztu behar direla ondoren redaktoreek irizpide horien baitan dokumentu xehetua egiteko. Plan Orokorra redaktatzen denean jartzen dira etxebizitzaren ratioak eta Plan Orokorraren modifikazio batean ezin dugu hori modifikatu. Beraz, ratio berdinetan zuek onartuta zenuten plan horretan aurreikusten ziren etxebizitza babestu horiek kopuru berdinetan gaude, legeak ez duelako ahalbideratzen aldaketa hori. Herri osoan planteatzen ari gara etxebizitza berrien kopurua jaistea, zergatik? Momentu honetan koltxoi haundi bat dugulako, horrekin erantzuten da San Blas eremua ez urbanizagarri izateari, momentu honetan jada eraikitzeke eskubidea daukaten zenbait esparru ditugulako. San Estebanen, momentua iristen denean, esparru hontan plan berezi bat egin beharko dugu, beti ere bertako lurjabeek dituzten eskubideak bermatzen. Beraz, etxebizitza kopurua izendatu behar da plana redaktatzen ari diren horiek irizpide batzuen baitan lana egin dezaten eta bidegarritasun horri lotuta egon behar dute beti. Kosteak, kasu hontan Larramendiko urbanizazioko kostuak hartu ziren oinarritzat. Baremoak edo ikuspegi ekonomikotik egiten denean aurkezpena, egiten da dauden datuekin eta orokortasun batetik. San Estebani dagokionez, ezin du izan esparru urbano haundi bat bertako izaera askoz lasaiagoa izan behar duelako. Azpiegitura aldetik bai Bonberenea eta Ferialekua mantentze alde zaudetela eta horrek pozten nau. Bestalde, plan hau ez da San Estebani dagokiona bakarra, baita sartzen dira merkatari txikien sustapenean, 4 eta 5 kategoria dituen supermerkatu guneak. Usabalen beharrak ikusten aritu gara eta legeak uzten dituen aukerarekin ahal den irikien utzi da beraien beharretara egokitzen. Oraindik eztabaida baten hasieran gaude: irizpideak markatzen ditugu eta irizpideak argiak dira plan redaktoreak edo ardura dutenak redaktatzen jarraitzeko.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Gu ez gabilta plana nahasten. Guk esaten duguna da orain muga jartzen bada 550 etxebizitzak eraikitzeke, ez dela dirurik egongo egiteko 240 alokeran jartzeko babes ofizialekoak. Nahi badugu hori egin, paperetan jaso behar da, eta gure kalkuluok 700 etxebizitza jarri behar dira, eta hori orain jarri behar da. Ekipamentutarako dirua jarri behar denean eremuan Udalak jartzen du aurrekontuetatik, ez det uste komenigarria denik, edo eremu bertatik ateratzen dugu, etxebizitzatik, lokaletatik...Horregatik erabaki behar da orain etxebizitza muga. Orain ixten bada horrek bere mugak jarriko ditu. Guk planteatzen duguna da 700 etxebizitzarekin 240 etxebizitza jartzea alokeran, hori da gure planteamendua. Nahi dugu 3.000.000 euro jarri ekipamendurako? Horretarako etxebizitza kopuru hori behar da. Guk nahi dugu honen

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

inguruan eztabaida bat.”

... **Alkatea:** “Nahasten ari zara Plan Orokorraren lehenengo irizpiden zehaztapena Plan Bereziarekin. Sartzen ari zara 240 etxebizitzaren %15eko aprobetxamendua, Plan Bereziaren redakzioan datorrenean, eta hori badakizue. Zuek nahi duzuen da eztabaida hau luzatzea. Argi dugu irizpide batzuk jarri ditugula eta guri egokiak iruditzen zaizkigula. Orain arte zuek ez zeundeten ados, zifrarik ez zenuten ematen. Eztabaida iritsiko da, biabildade ekonomikotaz hitzegiten dugunean, baina horretarako jakin beharko dugu zenbat bial dihoazten, eta orduan hitzegingo dugu zenbat dirutaz hitzegiten dugun. Ondo dakizue eta plana redaktatzen ari diren arkitektoek eskatu eta esan zutelako beraiek zifrak behar dituztela landu ahal izateko. Eztabaida badaukagu eta ados gaude gauz batzuetan. Guk, Udalak, ahal badugu aprobetxamendua dirutan jaso beharrean ekipamenduan jaso, hobe!”

10,-Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregelarrak harmonizatzeako erregelamendua onartzea.

10,-Aprobación del Reglamento de Armonización de los servicios públicos de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones Gipuzkoanas integradas en la autoridad territorial del transporte de Gipuzkoa.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publikoaren inguruko tarifa- sistema bateratua ezarri ondoren, berau osatzen duten eskualde, garraio- eragile, garraio enpresa, zein udal desberdinek, garraio publikoaren erabiltzaileei behar bezalako zerbitzu egoki eta eroso eskaintzeko helburuarekin, Tolosako Udaleko plenoan ondorengo erregelamendua onartu beharreko txostena da hau.

Tolosako herritarrek euren egunerokotasunean garraio zerbitzu publikoa bermatzeko beharra ikusirik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako hainbat Udalek, hainbat garraio- eragilek, hainbat garraio- enpresek eta Gipuzkoako Lurralde Agintaritzak martxan jarritako erregelamenduaren onarpena ezinbestekoa da. Behin Gipuzkoako Lurraldeko Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa- sistema bateratua ezarri ondoren, bertako herritarrei zerbitzu eraginkor bat bermatzeko beharrezkoak diren eskubide zein obligazioak eskaintzea. Mugikortasuna oinarritzko eskubide bat izanik, erregelamendu hau onartzen duten Herri Administrazioen konprometzua beharrezkoa izango da, herritar orok garraio publikoak suposatzen duen zerbitzu unibertsal hau bermatua izan dezan .

Horregatik, honakoa da erregelamenduaren edukia:

- Mugikortasuna oinarritzko eskubidea denez, zerbitzu honen izaera publikoa aldarrikatzen da.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

Garraio- zebitzuaren titularra den administrazioak irisgarritasun eta mugikortasun beharretara egokitu beharko du, herritar orori zerbitzu egoki bat bermatzeko. Tarifa- sistema desberdinak. Bidaiarien eskubide eta betebeharrak. Hizkuntza Politika. Garraio- enpresaren eskubide eta betebeharrak. Garraio- tituluren (ibilbide jakin batean bidaiatzeko baimena ematen duen agiria) inguruko xehetasun eta ñabardurak. Zehatzeko araubidea.

Udalerrriak, Erregimen Lokalaren Oinarriak erregulatu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, bertako bizilagunen beharrei erantzuteko helburuarekin edozein motatako ekintzak martxan jartzeko eta zerbitzuak emateko eskumena dauka.

Horrela, lurralde izaera duen Herri Administrazio Publiko bezala, eta bere eskumenen barruan, Udaletxe honi dagokio ahalmen erreglamentarioa eta autoantolakuntzazkoa.

Hau dena kontuan izanik, Udaltzaingoen diktamena kontuan izanik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

Lehen.- Hasierako onarpena ematea Gipuzkoako garraioen lurralde agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari.

Bigarren.- 30 eguneko epean jendaurrean jartzea aipatutako erregelamendua. Erreklamazioarik ez balego behin betiko onartuta geldituko da. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

11.- Belena patioako (Korreo k. 25) bizikleten aparkalekuko plazak erabiltzeko lizentzien esleipenerako arautegia.

11.- Ordenanza para la adjudicación de licencias para la utilización de las plazas de aparcamiento de bicicletas en el patio Belena (Korreo k. 25).

Tolosako Korreo Kaleko 25.ean (Belena Patioa) kokatzen den bizikleten aparkalekuak erabiltzeko lizentzien emakidako baldintzak eta erabilpen erregimena ezartzen dituen erregelamendua onartzea da helburua.

Belena Patioak, bizikletentzako 146 aparkaleku izango ditu hasiera batean, nahiz eta espazioaren okupazio baldintzen arabera, handiagoa izan daitekeen. Gainera, lekua dagoen heinean, beste erabilpen osagarrietarako erabili ahalko da bere kasuan; hala nola, umeen karritoak gordetzeko.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

Espazio honetako erabilpen- erregimen zein prezioari dagokionez, aparkalekua erabiltzeko lizentziak prekarioan emango dira, eta iraupena 5 urteraino luza daiteke, esleipendunak lehenago baja ematen ez badu.

Erabilpen ordutegia goizeko 7:00tatik gaueko 23:00k bitartekoa izango da eta Tolosako Udalak aipaturiko ordutegia egokitzeko eskubidea izango du aparkalekuaren erabilpenak sor ditzazken arazoak direla medio.

Herritarrek ordaindu beharreko tarifari dagokionez, urteko kuota 60€koa izango da (5 € hilabetean) eta erabiltzaileek 10€ko fidantza bat jarri beharko dute.

Urteko kanon hau banku- helbideratzearen bitartez ordainduko da eta erabiltzaileak ordainketa bakarra edota 30 €ko bi 6 hilekoetan egiteko aukera izango du. Gainera, kanon hau Hego Euskal Herriko lau probintzietako KPIaren arabera eguneratuko da.

Bizikleten aparkalekuak erabiltzeko lizentzien onuradun izan daitezke Tolosako “7 Hirigune Historikoa” esparruko kaleetako etxebizitzetan bizi diren bizilagunak, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- Tolosako Udalaren zerga- betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.
- Hainbat pertsona fisiko etxebizitza berean bizi ezker, erroldatutako pertsona aina bizikleta gordetzeko eskaera egiteko aukera izango dute.
- Eskatzaile kopurutik ondorioztatzen den etxebizitza bakoitzak bermatuta izango du automatikoki aparkaleku bat. Eta gainontzeko aparkalekuak zozketa bidez esleitu dira.

Aparkalekuen zozketan parte hartu nahi duten eta baldintzak betetzen dituzten herritarrek, I Eranskina bezala azaltzen den eskabide- orriak bete eta Tolosako Udaleko informazio bulegoan (Plaza Zaharra 6) aurkeztuko dituzten Tolosako Udalak ezarritako epea bete aurretik. Eskabide-orriarekin batera, EHNA, NANA edo berorren ordezkoko den beste agiri legalen fotokopia, eta 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu edo zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dira.

Onartuen behin betiko zerrenda egin ondoren, eskatzaile kopurutik ondorioztatzen den etxebizitza kopuruak aparkaleku kopurua gainditzen ez duen heinean, etxebizitza bakoitzak bermatuta izango du automatikoki aparkaleku bat. Eta gainontzeko aparkalekuak zozketa bidez esleitu dira. Edozein kasutan, bizikleta aparkaleku guztiak zozketa publiko baten bitartez adjudikatuko dira.

Zozketa egin ondoren adjudikaziodunen behin behineko zerrenda eta itzarote- zerrenda argitaratuko dira udal iragarki taulan eta udaletxeko web orrian. 3 egun naturaleko epean erreklamazioak aurkezteko aukera egongo da, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Horrela, behin behineko esleipedunak bete beharreko baldintzak egiaztatzerakoan behin

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

betikoak bihurtuko dira. Kontrako kasuan, pertsonari dagokion aparkalekua libre geratuko da eta berriro esleituko da, itxarote- zerrendari jarraituz. Erabaki hori hartzeak zabalik uzten du Tolosako Udalak adjudikaziodunen bat baztertzeko aukera, baldin eta, behin betiko kalifikazioaren unean, ez baditu betetzen aparkalekuak eskuratzeko baldintzak.

Erreklamaziorik gabeko epea pasa ondoren, Tolosako Udalak behin betiko zerrenda onartuko du eta aparkalekuak esleituko dira. Behin betiko esleipema amaituta, aparkalekuko erabiltzaileen eta gora- beheren kontrola Erretengibel, S.A.ren esku geratuko da.

Honen guztiaren ondoren, Udalbatzak, aho batez

ERABAKI DU:

Lehena.- Belena Patioko bizikleta aparkalekuko plazak erabiltzeko lizentzien esleipenerako arautegia behin behineko onartzea.

Bigarrena.- Informazio publikoan jartzea aipatutako erreglamendua eta gutxienez 30 eguneko epean, erreklamazio zein iradokizun aurkezteko. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da

Hirugarrena.- Inongo erreklamazio zein iradokizunik aurkeztu ez bada, akordioa behin betiko onartu dela ulertuko da.

12.- Jaurlaritzak bultzatu duen Udal Lege egitasmoaren aurrean EHBilduk aurkeztutako mozioa.

12.- Moción presentada por EHBildu referente al proyecto de Ley Municipal promovido por el Gobierno Vasco.

Eusko Jaurlaritza bultzatzen dabilen Udal Lege egitasmoaren aurrean Tolosako Udalak zera adierazi nahi du:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kostatzen izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein Udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez uneko interés politiko eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengana halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

Lege egitasmoak parte-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkariak guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELe ez ditu EAEko udal guztiak ordezkatzeko. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean diharduen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak dirá. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpon gaitza den arazoa izango du bere baitan.

LEGEAK PROPOSATZEN DUEN FINANTZIAZIO EREDUA: Udalei hainbat eskumen berri bereganatzeko aukera onartzen zaie. Aitzitik, ez da oso argi geratzen eskumen horiek guztiak garatzeko finantziario bidé berriak zeintzuk izango diren. Aurreikuspen batzuk egiten dirá baina oso azalez. Horrekin udalak gaur eguneko egoera berdinean geratzen dirá. Eskumenekin batera finantziarioak iturri berriak aurreikusi beharko lirateke. Bata bestea gabe egiteak desoreka handiak sortzen dituelako.

Bestalde, jada udalek ez dagozkien baina garatzen dituzten eskumenak onartzen zaizkie, baina finantziario bidé berririk ez. Tamalez, hori hórrela hainbat udalek ezingo liokete gaur egungo egoerari eutsi.

Ez da instituzioen arteko kuota eguneratu edo egokitzeko urratsik ematen. EAEko erakundeen arteko baliabideen banaketa Ekarpene Legearen arabera da. Bertan koefiziente bertikala eta horizontalen bidez banatzen dirá baliabideak. Eusko Jaurlaritzak %70,04 jasotzen du eta gainontzeko %29,96 Aldundien eta Udalen artean banatzen da. Koefiziente horien moldaketa edo eguneratzeak ahalbideratu beharko lituzke eskumen berriak garatzeko finantziario nahikotasuna.

HIZKUNTZA: Indarrean dagoen euskaren legea oinarritzat hartuta, Udalen Lege honetan, hizkuntzaren erabileran, euskaraz hitz egiteko borondaterik ez duten pertsonen eskubideak lehenesten dirá. Era berean Euskara hutsean bizi nahi duten herritarren eskubideak bortxatuz. Udalek euskara hutsez jarduteko duten borondatea indartu eta babestu egin behar da. Lege honek ez du bere horretan hori bermatzen eta horretarako aukera bikaina galtzen da. Hizkuntz eskubideen bermean aurrera urratsak eman behar dirá. Urrats horiek legeak berak espresuki bildu behar ditu.

UDAL AUTONOMIAREN DEFENTSA: hitzaurrean adierazpen garrantzitsuak egiten dirá norabide horretan. Ildo beretik, artikulatuak ere hainbat aipamen gordetzen ditu. Tamalez, hori guztia filosofia hutsean geratzen da. Momentu honetan badira zenbait lege sektorial tramitazioan (EAEko portuen kudeaketarako lege egitasmoa, Funtzio publikoko legea,...) udalen hainbat eskumen bertan behera utziko lituzketenak. Hori da ekidin beharreko jardura. Izan ere, lege honetan autonomiaren defentsa egiteak ez du ezertarako balio gero praktikan beste lege sektorial batzuen bitartez urratzen bada. Hitzaurrean ez ezik, artikulatuaren bidez ere bermatu behar litzateke hori guztia. Udal lege honek lege marko izaera izan dezan neurriak hartu behar dirá. Hartara, gerora abiarazten diren lege sektorial guztiek lege egitasmo hau errespetatu beharko lukete.

Bestalde, udalek eskumen berriak eskuratzea euren kaudimenarekin lotu nahi du legeak. Hori udalen autonomia defendatzearekin zuzenean kontrajartzen da. Udalek kudeatu beharreko eskumenen ardatzak ezin du ogasun baldintzetan oinarritu. Autonomia lokalaren defentsak beste oinarri batzuk eduki behar ditu: gertutasuna, zerbitzuen kalitatea, herritarren onura,...

Lege honek salto kualitatibo bat suposatu beharko luke. Zoritxarrez alor jakin batzuk arautzera

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

mugatzen da. Oinarrizko legedia estatukoak izaten jarraituko du. Hortaz, EAEko udalen inguruabar guztiak arautzeko erronkari eutsi ordez, bestelako interesak ahalbideratzen dirá. Bien bitartean, EAEko udalek legeri espainiarrera erremittitzen jarraitu beharko dute.

EUDEL: erakunde honen aldeko diskriminazio positiboa burutzen da lege egitasmo honetan. Lege honek udalen mintzakide bakartzat, hartu nahi du EUDEL. Aitzitik, EUDELeK ez ditu EAEko udalen %40 ordezkatzen. Udalen ordezkaritza burutzen dituen elkarteez hitz egin beharko luke legeak eta ez EUDELi buruz espresuki. Udalen kontrolerako urrats garbia da horrekin guztiarekin eman nahi dena. Hori ez zaigu j nondik inora bidezko iruditzen.

TOKI ERAKUNDEAK EZ DIRÁ AINTZAT HARTZEN: tokiko erakundeen legea izan ordez udalen lege egitasmoa bultzatu nahi izan da. Udalaz azpiko erakundeak ez dirá aintzat hartzen eta horiek gure herrien antolaketan izan duten garrantzia ez da ageri. Gero eta indar handiagoa duten eskualdeen eta kuadrilen errealtateari ere ez zaio heltzen. Gainera ez da udal eta foru instituzioen artean dagoen errealtatean sakontzeko urratsik ematen.

HERRITARREN PARTEHARTZEA: herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik herritarrekin zuzenean lan egiteko bitartekoak jarri eta sakondu behar dirá. Kultura berri bat sustatu behar da. Horretarako lege egitasmo hau erabakigarria izan daiteke. Legeak parte-hartzeari aipamen bat egiten badio ere, ez du behar adina baliabide jartzen horretarako. Aukerazko tresna bezala aipatzen da. Urrats zehatzak emateko baino espedienteak kunplitzeko barnebiltzen ditu parte-hartzeari buruzko edukiak.

Bestalde, ez da ezer egiten udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko: ez plenoan, ez batzorde informatiboetan,... Herritarrentzat intrintsekoak beharko luketen hainbat eskubideren (informaziorako eskubidea, aintzat hartua izateko eskubidea,...) inguruan ez da aipamen bakar bat egiten.

EUSKAL HERRIKO BESTE INSTITUZIO PUBLIKOekin HARREMANTZEKO NEURRIAK: ez da inolako aipamen zuzenik egiten Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzio publikoekin harremanak ahalbideratzeari begira. Gure iritziz hori sekulako gabezia da. Lege egitasmo hau probestu beharko genuke harreman inter-instituzional guztiak ahalbideratzeko. Bai instituzio nafarrekin eta bai iparraldeko instituzioekin. Gaur egun hainbat egitasmo martxan dirá Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzioekin elkarlanean gauzatzen ari direnak. Horiek, berriz ere, arauketa zehatzik gabe eta, larriagoa dena, inolako bermerik gabe geratzeko lirateke.

Horregatik quztiagatik, Tolosako Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek onartzea proposatzen zaio:

- 1. Tolosako Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.**
- 2. Tolosako Udalak, Jaurlaritzari Udalen aldetik egiten diren ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko prozedura aurkeztu dezan eskatzen du.**
- 3. Tolosako Udala, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu,**

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko bitartekoak jartzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari.

- 4. Tolosako Udalak, Udal zein Toki Entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko deia egiten du. Orain artean udalak, egitura instituzionalaren azken terminalak izan dirá eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izaki, Udalak zein gainerako Toki Entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da.**

- 5. Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio.**

PSEE-PSOeko ordezkariak gaia mahai gainean uztea eskatu du. Proposamena bozkatu egin da eta emaitza hau izan da: alde PSEE-SPOE (1) eta EAJ/PNV (7). Kontra EHBildu (7) eta Aralar (1). Berrito bozkatu da emaitza berdina lortuz. Beraz, Alkateak erabaki du mozioaren edukia bozkatzea.

Mozioa bozkatu egin da emaitzak hauek izanik: alde agertu dira EHBildu (7) eta Aralar (1). Kontra EAJ/PNV (7) eta PSEE-PSOEEko ordezkaria abstenitu egin da. Beraz, mozioa onartuta geratu da.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: “Oker ez banago, Legebiltzarrean ez da sartu oraindik proposamenik, horregatik proposatuko nuke mahai gainean uztea.”

...Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: “Momentu honetan Udal lege hau hemen jartzeak hauteskunde garaian gaudela adierazten du. Hau aspalditik datorren gaia da. Intentu asko egin dira hau aurrera ateratzeko. Azkeneko asmoa Jaurlaritzak bere proiektua utzi zuen Legebiltzarrean, beraz, Jaurlaritzari ezin zaio ezer eskatu. Hemen zenbait kontu daude, nere esparruari dagokionez, euskeraz ezin dela lan egin? Ez dakit nundik ateratzen den hori. Autonomia indartu behar dela? Autonomia indartzen du Udal lege honek, hori ezin da ukatu. Udalek aukera izan dute bere ekarpenak egiteko, eta zenbait udalek erantzungo zuela pentsatzen dut. Hauteskunde garaian gaude eta gai batzuk oportunitate hutsak dira.”

...Alkatea: “Oportunitate hutsa esatea gogor xamarra dela uste dut. Espainia mailan autonomia bakarra udal legerik ez duena momentu honetan hau da. Aurreko legealdian PSEE-PSOEk sustatu zuen eta EAJ/PNV blokeatu zuen. Alderdi bat eta bestearen tirabira horretan gehiengo lortu eta beti ixkinean gelditu dena. Ondorioz, Udalak izan gara horren kaltea jasan dugunok, azkenean ez dugulako mapa instituzionala finkatu eta, ondorioz, ez dakigulako sustatzen ari garan politika, badaukagun sustatzea edo ez. Udalei ekarpenak egiteko epearen luzapena eskatu zitzairen eta ukatu egin zitzaigun. Tolosa izan da Udal bakarra ponentzian parte izan duena. Nik uste udaletxe guztiei eman behar zitzaizela entzuteko aukera. Guretzat aukera bat da behingoz Udal lege interesgarri eta egoki bat sustatzeko, zer helburuarekin? Ahalik eta konpetentzi gehien udalak jaso eta hortik aparte konpetentzi hauek finantziario sendo bat izateko. Momentu honetan eskatzen duguna da adostasuna egotea udalen artean. Alegazio asko daude eztabaida sakona behar da.”

OHIZKO OSOKO BILKURA

2015.03.31

13.- Galde-erreguak.

13.- Ruegos y preguntas.

... Alkatea: *“Elkartasuna adierazi nahi diot gaur Errekaleor, Gasteizko auzo hutsa denari bizia ematen saiatu diren gazte guzti horiei. Auzune huts bat, botatzeko asmoa zegoen eta gazte askok, etxebizitza nahi zutelako, okupatu egin zuten orain dela hilabete batzuk. Udalaren erantzuna izan da Udaltzaingoa eta Ertzaintza bidali eta kableatu elektrikoa desegin gazte horiek bota ahal izateko.”*

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: *“Plaza Berriko kioskoan Sorturen pankarta bat dago. Beraz, Sortuk eremu publikoaren erabilera pribatiboa egiten du. Baita ere, Ernai taldeko bandera gorri batzuk daude faroletatik zintzilik eta eskatzen dut horiek erretiratzea, kalea denona delako.”*

... Alkateak erantzuten dio agindua emana dagoela pintadak eta pankartak kentzeko.

Besterik gabe, gaueko bederatzietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA